



7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure proiektua aurrera atera dezan, elementu asko behar ditugu, eta ez bakarrik fisikoak:

- **Baliabide fisikoak:** Furgoneta egokiak. Hau funtsezkoa da animaliak tratu hobezina izateko. Furgonetak ekipamendu osoa izan behar du eta higiene zuzena ere. Bestetik, langileen erosotasuna oso garrantzitsua da ere. Horregatik, furgonetak erosoak izan behar dira, tenperaturaren arabera egokitu behar dira aire girotuarekin edo berokuntza sistemarekin. Gero baita ere, medikuntza materiala sendagaiak, injekzioak, xiringak, hozkailuak (injekzioentzako), anestesia tresnak, kremak, zauriak desinfektatzeko tresnak... Eta azkenik, GPS eta telefono sistema egokia izan behar dugu bezeroak gurekin kontaktatu ahal izateko eta gure langileak haien artean komunikatzeko, lana askoz errazago bihurtuz.
- **Baliabide intelektualak:** Albaitari ezagutza ezinbestekoa da. Zerbitzu profesionala eskaintzeko, gure langileak titulazioak edo formakuntzak izan behar dituzte albaitaritzan. Bestalde, araudiak eta legeak jakitea eta kontuan hartzea, animaliak zaintzeko eta tratatzeko araudiak eta legeak kontuan hartu behar ditugu.
- **Giza baliabideak:** Alde batetik, albaitariak gure oinarrizko ardatza dira. Profesionalak dira, esperientzia dute eta landa-eremuan lan egiteko gaitasuna dute. Bestetik, laguntzaileak, animaliak garraiatzen eta zaintzen lagunduko dutenak, bai kanpoan bai barruan. Eta azkenik, marketing taldea. Haiek bezeroekin harremanak hasiko dituzte, diru fluxua antolatuko dute eta enpresa kudeatuko dute.
- **Finantza baliabideak:** Lehenik, hasierako inbertsioa, furgoneta egokituak erostea, albaitariak kontratatzea, materialak eta ekipamendu guztia lortzea eta hasteko kapital kopuru bat lortzea. Gero, diru iturriak. Hasierako inbertsioa estaltzeko finantzaketa (bankuak, maileguak...) eta zerbitzuak eskaintzerakoan, beharrezkoa izango den dirua aurrerantzea onuragarria da.